

ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATEA

- **Erantzukizun mugatuko sozietateen aurrekinak. Funtzio ekonomikoa eta kontzeptua**
 - Espainian lehengo Erantzukizun mugatuko sozietateen Legea, 1953koa, uztailaren 17koa
 - Gaur egun, 1995eko Erantzukizun mugatuko sozietateen Legea, martxoaren 23koa
 - 1/2010 Kapital Sozietateen Lege, uztailaren 2koa (Errege Dekretua)
 - Kontzeptua (KSL 1 art.)
 - Merkataritzako izaera
 - Kapitala (KSL 4 art.)
 - 3000 € gutxienez
 - Partizipazioetan banaturik –pilagarriak, zatiezinak- eta ezin dira ez titulutan, ez kontu-oharpenetan, ezta akziotan ere ordezkatu (KSL 1 art.)
 - Bazkideen erantzukizuna mugatua da

- Sozietate anonimoarekiko desberdintasunak:
 - EMS, partizipazioak, ez tituluak, ez kontu-oharpenak; SA, berriz, akzioak ditu
 - EMS, eraketan kapital osoa erabat despoltsaturik; SA, gutxienez %25
 - Gutxienerako kapitala, EMS 3000 € eta SA 60.000 €
 - EMS ezin dira *obligazioak* jaulki
 - EMS eraketa aldiberekoa izango da bakarrik

- **Funtzio ekonomikoa, enpresa txikiak eta ertainak, mota honetakoak enpresa gehienak dira**

- **Sozietatearen deitura, egoitza, kapital soziala eta merkataritzako izaera (KSL 6 art.)**
 - Deitura, izena eta bere ondoan “Erantzukizun mugatuko sozietatea” espresioa edo bere hitz laburudurak –E.M.S.- (KSL 6 art.)

- Egoitza, administrazioa edo ustiapen establezimendua (KSL 9 art.)
- Kapitala, gutxienez 3000 € (KSL 4 art.)
 - Partizipazioetan banaturik, pilagarriak eta zatiezinak
 - Ekarpenez osaturik
 - Eraketa unean osorik despoltsaturik
- Merkataritzako izaera beti

- **Eraketaren erregulazio juridikoa. Eranskinezko prestazioen ezaugarriak**

- Eraketa (KSL 19 eta 20 artk.)
 - Aldiberekoa
 - Eskritura publikoa Merkataritzako Erregistroan inskribatu
 - Gutxieneko fundatzaile kopurua –bat-
- Ekarpinak (KSL 58/85 artk.)
 - Objektua, ondasunak eta eskubideak beti ere ekonomikoki baloragarriak direnean
 - Inoiz ez lana edo zerbitzuak
 - Diruzkoak
 - Notarioari eman, gordailuaren ziurtagiria
 - Notarioari dirua eman
 - Ez diruzkoak, eskritura publikoa (*in natura*)
 - Deskripzioa, Erregistroko datuak eta balio ekonomikoa
 - Bazkideei esleituriko partizipazioak zenbaturik
- Eranskinezko prestazioak (KSL 86/89 artk.): estatutuetan ezarritakoak eta derrigorrezkoak. Ez dira kapitalaren ekarpinak izango
 - Doakoak
 - Ordainduak
- **Partizipazioak kapital eta eskubide bezala**
 - Partizipazioak zatiezinak eta pilagarriak dira
 - Ez dira titulu edo kontu oharpenetan ordezkatu

- Eskubide multzoa:
 - Irabaziak jasotzeko eskubidea
 - Batzarrera joateko eskubidea
 - Lehentasun eskubidea
 - Kitapen kuotak
 - Aurkapen eskubidea
 - Boto eskubidea
 - Informazio eskubidea

- Partizipazioen eskualdaketa –transmisioa-
 - *Inter vivos* egindako eskualdaketa KSL 104/112 artk.)
 - Askea, bazkideei, ezkontideari, aurre ahaide eta ondorengoei
 - Beste kasuetan: estatutuak eta legea
 - Eskualdatzaileek administratzaileei jakinaraziko die
 - Sozietateak erabaki egin beharko du, ukatzeko erosle bat aurkeztu beharko dio –bazkide bat edo hirugarrena-. Eskualdaketa ukatzen badu, prezioa eskualdatzaileak esanikoa izango da. Eskualdaketa dokumentu publiko batean jasoko da, hilabetean.
 - Eskualdaketa askea, sozietatea jakin gainean jarri zenetik hiru hilabetetara, baldin eta sozietateak eroslerik aurkezten ez badio.
 - *Mortis causa*
 - Oinordekoa bazkide izango da
 - Estatutuek jaso dezakete bizirik daudenek eskurapen eskubidea izatea

- Partizipazioen jabekidetzak, usufuktua eta bahitura

- **Erantzukizun mugatuko sozietatearen organoei buruzko ezagutza orokorrak**

- Batzar Nagusia (KSL 159/203 artk.)
 - Erregulazio juridikoa: bazkide guztiak, akordioa gehiengoaz, akordioetara lotuak
 - Deialdiaren forma: MEAOn eta egoitzeko hedapen handiko egunkari batean
 - Asistentzia eskubidea, bazkide guztiena eta ordezkatuak izateko aukera
 - Gehiengoak

- Batzar Nagusira joan direnen erdia gehi bat, baldin eta kapitalaren herena osatzen badute
- Kapitala gehitu eta murrizteko, kapitalaren erdiak aldeko botoa emango du
- Sozietatearen eraldaketa, bat egitea, bereizketa eta eskurapen lehentasun eskubidea kentzeko, Kapitalaren bi herenek aldeko botoa eman beharko dute.

- **Sozietatearen akordioen aurkapena (KSL 204/208 artk.)**

- Arraioak akordioak aurkatzeko (KSL 204 art.)

Legearen eta Estatutuen aurka (deusezak –nuloak-)

Eskatuko da sozietateari kaltea egitea bazkide batzuen onuraren alde

- Aurkapen epeak (KSL 205 art.)
 - Deusezak, urtebete (ordena publikoaren aurkakoak inoiz ez)
- Legitimazioa (KSL 206 art.)
 - Deusezak, edozein bazkidek, administratzaileek edo hirugarrenek
 - Merkataritzako epailearen aurrean
 - 2000 Auzipetze Zibileko Legea ohiko judizioa
 - Demandaren oharpen idazpena Merkataritzako Erregistroan eta MEAOn.

ADMINISTRAZIOAREN ORGANOA (KSL 209/251 ARTK.)

- Administratzaileak sozietatearen kudeaketa eta ordezkapen organo bezala (KSL 209/224 artk.)
 - Beharrezkoa eta iraunkorra
 - Gestioa
 - Ordezkapen eremua, estatutuetako objektuko iharduera
 - Administrazioaren antolaketa
 - Administratzaile bakarra

- Hainbat administratzaile, administrazio bateratua eta administrazio solidarioa
- Administrazio Kontseilua. inoiz ez 3 baino gutxiago eta 12 baino gehiago Administrazio Kontseiluko kasuan. Esku ordetzeak Sozietate anonimoen Legearena izango da.
- Estatutuek gutxienerako eta gehienezko kopuruak emango dituzte, baina izendapena Batzar Nagusiak, eta bazkide izan daiteke edo ez
- Iraupena, mugagabea edo mugatua estatutuen arabera. Birhautatuak izan daiteke epealdi berberetarako
- Lehiaketa debekua
 - Ez bere ezta inoren kontura ere
 - Ez berdina, ez antzeko iharduera
 - Sozietateak onartzen dituen kasuak izan ezik
 - Edozein bazkidek eska diezaioke epaileari administratzailea kentzea lehiaketa egiteagatik
- Kargutik kentzea Batzar Nagusiak erabakiko du

- **Administratzaileen erantzukizuna (KSL 236/241 artk.)**

- Erantzukizuna
 - Nork tarteka dezake?
 - Sozietateak
 - Bazkideek
 - Hartzekodunek
 - Zergatik? (erantzukizunaren balizkoak –KSL 236 art.-)
 - Legea eta Estatutuen kontrako egintzak burutu direlako
 - Kalteak sortu dituztelako sozietatea edo bazkideen aurka
 - Egileak burututako egintza eta sortutako kalteen artean erlazio zuzena dagoelako

• Administratzaileen erantzukizun solidarioa (KSL 237 art.)

• Akzio soziala (KSL 238 art.)

Kaltetua, sozietatea

Legitimatuturik

- Sozietatea
- Bazkideak (%5)
- Hartzekodunak

Norbanako akzioa (KSL 241 art.)

Kaltetuak, akziodunak eta hirugarrenak
Legitimatuetak, akziodunak eta hirugarrenak

- **Sozietatearen estatutuen aldaketa eta betebeharrak orokorrak. (KSL 285/345 artk.)**

- Sozietatearen estatutuen aldaketa eta betebeharrak orokorrak (285/345 artk.)
 - Batzar Nagusiaren akordioa
 - Deialdia. Aldatu beharreko puntuak
 - Bazkideek proposaturiko aldaketaren testua aztertzeko eskubidea
 - Aldaketa, eskritura publikoan Merkataritzako Erregistroan inskribatu eta MEAOn argitaratu

- **Sozietatearen kapitalaren zabalkuntza eta murriztapena (KSL 295/342)**

- **Kapitalaren gehikuntza motak eta prozedura. Eraentza juridikoa**
 - Motak
 - Partizipazio berrien jaulkipena
 - Partizipazioen balio izenduna igotzea
 - Prozedura
 - Batzarraren akordioa
 - Akordioaren egikaritzea
 - Kapitalaren gehikuntzaren akordioa eta exekuzioa inskribatu egingo dira. Horrek estatutuetako kapital zifra aldaraziko du
 - Kontrabalioa:
 - Diruzko ekarpenak (aurrekoak desplotsatuak osotasunean %3 salbu)
 - Ez diruzko ekarpenak
 - Administratzaileen txostena
 - Adituen txostenak
 - Kredituak konpentsatuz
 - Erreserben kontura (erreserba xedagarriak, legezko erreserbaren kontura)

- **Eskuratze lehentasun eskubidea kapital gehikuntzan**
 - Kontzeptua
 - Kapital gehikuntza partizipazio berriak sortuz
 - Ditutzen partizipazioen balio nominalaren proportzioan
 - Epea (ez hilabete baino gutxiago)
 - Administratzaileek
 - MEAOn argitaratzen denetik hilabeteko epea egikaritzeko
 - Eskuratze lehentasun eskubidea kentzeko arrazoiak
 - Politikoak
 - Ekonomikoak

- **Gehitutako kapitalaren harpidetza osoa ez denean**
 - Egindako harpidetzaren arabera igoko da, baldin eta aurreikusia bazegoen
 - Horren ezean, ordura arte egindako ekarpenak itzuliko egin dira eta Kapital gehikuntza bertan behera utzi

- **Kapitalaren murriztapena: helburuak eta prozedurak. Kapital murriztapen mota desberdinen eraentza juridikoa**
 - Helburuak
 - Bazkideei ekarpenak itzuli (barkamena)
 - Legezko edo borondatezko erreserben eraketa edo gehikuntza
 - Kapitala eta ondarearen arteko oreka berrezarri
 - Prozedurak
 - Balio izenduna jaitsiz
 - Partizipazioen amortizazioa
 - Partizipazioak elkartu trukatzeko (kanjeatzeko)
 - Eraentza juridikoa
 - Batzarraren akordioa
 - Partizipazioak amortizatzen direnean, kaltetutako gehiengoaren adostasuna
 - Ondarea eta kapitalaren arteko oreka berreskuratzeko denean, akzio guztiak amortizatuko dira dauden pribilejioak errespetatuz
 - Akordioa egikaritu
 - Kapital murriztapenaren inskripzioa
 - Akordioaren eragiketa
 - *Hartzekodunen ahalmenak kapitalaren murriztapenean Kapital murriztapenak hainbat helburu ditu*

- Ekarpenen itzulpena
- Hartzekodunek aurkatzeko eskubidea izango dute, kapitala murrizteak hartzekodunen bermeak murriztu egiten dituelako
- Epea, akordioa argitaratu zenetik hilabetera
- Hartzekodunek ezin izango dute akordioa aurkatu:
 - Kapitala eta ondarearen arteko oreka berrezarri nahi denean
 - Legezko erreserba eratzeko egiten denean
 - Murriztapena emaitzen, erreserba libreen edo doan jasotako partizipazioen amortizazioa erabiliz egiten denean (diru hori xedapenezko erreserbara pasako da eta erabiliko da Kapital soziala murrizteko behar den prozeduraz
- Ezin izango da kapitala murriztu galerak konpensatzeko edo legezko erreserba hornitzeko:
 - Sozietateak borondatezko erreserbak dituenean
 - Edo legezko erreserba, murriztapena egin eta gero, kapitalaren zifra baino %10 gehiago osatzen duenean
- Kapitalaren igoera eta murriztapena batera
 - Kapitalaren murriztapena zerora
 - Kapitalaren igoera
 - Bien inskripzioa Merkataritzako Erregistroan
- Kapitalaren murriztapena berezko partizipazioak eskuratuz egiten denean gero hauek amortizatzeko
 - Jasotzen badira, amortizatzeko daudenak baino gehiago, murriztuko dira proportzioan bazkideen artean; partizipazio mota bat kaltetuta ateratzen bada gero, horren gehiengoaren baimena beharko da
 - Jasotzen diren partizipazioak amortizatzeko kopurua baino txikiagoa bada, bere horretan egingo da
 - Amortizazioa, erosketa burutu eta handik hilabetera

- **Bazkideen banaketa eta kanporatzea (KSL 346 /359 artk.)**

- Aldeko botoa eman duten bazkideek sozietatetik alde egiteko aukera izango dute ondoko kasuetan:
 - Sozietatearen objektuaren aldaketa
 - Egoitza atzerrira eramaten denean
 - Partizipazioen eskualdaketaren erregulazioa aldetzerakoan
 - Sozietatearen iraupena aldatzen denean

- Sozietatea ondokoetan eraldatzen denean: SA, Sozietate zibila, Kooperatiba, kolektiboa edo komandataria, interes ekonomidun elkarteak.
- Eranskinen prestazioen aldaketa ematen denean.
- Bazkidearen banaketa estatutuen klausula baten bidez eratu nahi denean bazkide guztien adostasuna beharko da.
- Bazkidearen banaketak ondoko ondorioak izan ditzake: partizipazioen balioagatik kapitala murriztea edo sozietateak jasotzen baditu eskritura berria eratzea.
- Bazkideen kanporatzea:
 - Legezko arrazoiak: eranskinezko prestazioak ez egitea, administratzailea leiala ez izatea.
 - Estatutuetako arrazoiak: estatutuetan jasota daudenak
- Prozedura: Batzar Nagusiaren akordioa, eta % 25 baino gehiago badu epailearen erabakia behar da.

- **Sozietatearen desegitea eta kitapena (KSL 360/400 artk.)**

- Desegitea eta Kitapena
 - Desegite arrazoiak: Sozietate anonimoaren arrazoi berberak eta bat gehiago, hiru urtetan iharduerarik ez izana:
 - Iraupen data betetzea
 - Batzar Nagusiak erabakitzea
 - Sozietatearen objektua edo helburua bete izana
 - Hiru urte pasa izana jarduerarik gabe
 - Zorrak izatea (ondarea kapital zifra erdira ez iristea). Kapitala igo edo murriztu daiteke.
 - Gutxieneko kapitala ez izatea
 - Estatutuek jaso dezaketen beste edozein arrazoi dela medio
 - Administratzaileek, aurreko arrazoiak kontuan hartzen ez badute eta sozietatea desegiteko BN-rako deialdia luzatzen ez badute, aurrerantzean sor daitezkeen zorrenatik solidarioki eta mugagabeki erantzungo dute.

- Desegiteak kitapena ekarriko du
- Kitatzaileen izendapena, administratzaileak beti ere Batzar Nagusiak edo estatutuetan azaltzen ez bada
- Kitapena ireki hurrengo hiru hilabetetan: balantzea eta inbentarioa –desegite egunekoak-
- Kitapen eragiketak (kapital partaidetzaren proportzioan)
 - Kontabilitatea
 - Kredituak kobratu
 - Zorrak ordaindu
 - Ondasunak saldu
 - Kitapen kuota ordaindu
 - Batzarrak ondokoa onartu: azken balantzea, eragiketen txostena eta banaketa proiektua
- Merkataritzako Erregistroan kitapenaren ondorioa inskribatzeak sozietatearen iraungipen eskritura dakar

- **Erantzukizun mugatuko sozietatearen Urteko kontuak eta mozkinen banaketa (KSL 253/284 artk.)**
- Sozietate anonimoen Legearen VII. Kapituluaren zegoena ezarri du
- Irabazien banaketa, kapitalaren partaidetzaren proportzioan
- Kontabilitatea aztertzeko eskubidea
- Batzarraren deialdian
 - Onartu beharreko dokumentuak jasotzeko eskubidea
 - Kapitalaren %5 duten bazkideek beraiek edo kontabilitate aditu batek, egiaztatzearen azterketa

BAZKIDE BAKARREKO ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATEA (KSL 12/17 artikulua) (erregimen berbera ezarriko zaio bazkide bakarreko sozietate anonimoari)

- Jatorrikoa: bazkide bakarra (pertsone fisikoa edo juridikoa)

- Eratorria: bi edo bazkide gehiagorekin eratu denean, baina gero bazkide bakarrarekin geratzen denean (6 hilabete Merkataritzako Erregistroan inskribatzeko). Hori ezean bazkideak sozietatearen zorraz mugagabeki eta solidarioki erantzungo du.
- Bazkide bakarraren izaera faktura eta dokumentazio guztian azalduko da.
- Bazkideak Batzar Nagusiak dituen funtzio berberak izango ditu. Bere erabakiak akta batean jasoko dira eta bai berak edo administratzaileek egikarituko dituzte.
- Bazkide bakarrak sozietatearekin burutu ditzakeen kontratuak idatziz egingo dira eta sozietatearen liburuan jasoko dira. Memoriak ere jasoko ditu eragiketa horiek. Hori egin ezean konkurtsoa ematen den kasuetan bazkideak ezin izango ditu kontratu horiek konkurtsoaren masatik banandu.

ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATE BERRIA (KSL 434/454 artikuluak)

- **Deitura:** gutxienez bazkide baten izen-deiturak + kode alfanumerikoa + EMS Enpresa Berria.
- **Objektua edo helburua:** nekazaritza, abelgintza, arrantza, eraikuntza, merkataritza, turismogintza, garraio gintza, komunikazioak, tartekaritza, profesionala, zerbitzuak.
- **Bazkideak:** pertsona fisikoak bakarrik eta ezin dira bost baino gehiago izan.
- **Eraketa:** eraketa eskrituran sozietate kontratua jasoko da (24 ordu) eta gero Merkataritzako Erregistroan inskribatuko da (24 ordu). Prozedura telematikoaren bidez egin daiteke baldin eta sinadura elektronikoa erabiliko da.
- **Kapitala:** gutxienez 3.012 euro eta 120.000 euro gehienez. Partzipazioak dirutan despoltsatuko dira.

- **Partizipazioen eskualdaketa:** *inter vivos* eta pertsona fisikoei bakarrik.
- **Batzar Nagusia:** korreoz edo baliabide telematikoz bakarrik burutuko da deialdia.
- **Administrazio organoa:** kide bakarrekoa edo anitza (solidarioki edo bateratuki), sekulan ez du Kontseilu forma hartuko. Administratzaileak bazkideak izango dira eta karguaren iraupena mugagabea izango da.